



LUR- ERLASTARRA

Bombus terrestris

TAMAINA

11 - 23 mm

ITXURA

Lur-erlastarrak gorputz oso iletsua eta hegaldi pisua du. Erlastar handi beltz eta hori horrek abdomenaren muturra zuria du.

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

> Martxotik urrira

NON?

> Ingurune irekietan
> Oihan argietan

! Bertze erlastar espezie batzuekin nahas daiteke, baina espezie behaketa oro interesgarria da.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

3 hilabete

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Helduak nektarrez elikatzen dira. Larbek batez ere polena eta ezti pixka bat jaten dute.

Lur-erlastarrek ehunka indibiduoko urteroko koloniak osatzen dituzte.

Erregina batek lehenbizi habia egiten du (normalean lurrazpikoa), arraultzak erruten ditu eta larbak elikatzen ditu, langileen laguntzarekin.

Udan hazitako erregina berriak hibernatzera joanen dira eta ondoko urtean beste kolonia bat sortuko dute.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Lur-erlastarra polinizatzaile eraginkorrenetakoa da, baita erlea baino eraginkorragoa ere ! Askoz lehenago polinizatzen du sasoian, eta egunsentitik aktiboa da, izan eguraldi euritsuan edo haizetsuan. Haatik, berriki, populazioak apaldu dira, landutako azalerak, pestiziden erabilera eta hiri-biztanleriaren hazkundera emendatu direlako.

Hala ere, badirudi inguruko giza aldaketei ongi eusten diola eta gure eskualdean oraino presentzia handia duela.